

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Eta eguzki-sistema ez bada uste den bezain egonkorra?

EGUZKIA ITZALI AURRETIK gure eguzki-sistemako bi planeten arteko talka gerta al daiteke? Galdera horri erantzun nahian Jacques Laskar eta Mickael Gastineau ikerlari frantziarrek ikerketa plazaratu dute.

Euren ustez datozen 5.000 milioi urtetan, hau da, eguzkia itzali bitartean, gauzak orain arte bezala segitzeko probabilitatea %99koa da. Badago %1eko probabilitatea beste zer-bait gertatzeko, zer ordea?

Gakoa Merkurioren dago. Planeta horren orbita hain da eszentrikoa, non egungo orbitatik ateratzeko posibilitatea badagoen. Kasu horretan Martek eta Lurrak jasango lukete eragina bete-betean; bai talka izateko arriskua, baita grabitazio-indarren eragina ere.

Ikerketa 2.500 simulazioen gainean egin da, superordenagaiak erabiliz. Ikerlariak adierazi dutenez, astroen mugimenduak oso epe luzean aurreikusi daitezke, baina kaos probabilitatea, txikia baldin bada ere, egon badago.



Meditazioak garuna indartzen du

MUSKULUAK ETA HEZURRAK indartzeko estrategia ugari dago, baina zer egin daiteke garuna indartzeko? Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera, meditazioa.

Ikerlariak 44 pertsona aztertu zituzten, bi taldetan banatuta, batean meditaziorik egiten ez dutenekin, eta bestea meditazio-tekniketan ohitutaekin.

Hainbat erresonantzia magnetiko egin zitzaizen parte hartzaileei, eta emaitzak oso garbiak izan ziren. Garunen tamaina antzekoa zen kasu guztietan, baina meditazioa egiten zutenek askoz ere garun aktiboagoak zituztela ikusi zuten.

Aktibotasun hori maila mikroskopikoan nola gauzatzen den, hau da, neuronen mailako konexioak nolakoak diren, ez da ezagutzen oraindik, baina hori etorkizuneko ikerketek argituko dute.



Koralen eboluzioa moteldurik Karibe Itsasoan

Karibeko koralen artean gero eta konplexutasun txikiagoa dago; orain 50 urte arrezifeen %75 oso konplexua zen, eta gaur egun %20 baino ez. Horrek aldaketak eragin ditzake bertako bizian.

<http://ttiki.com/4385>

Nitrogeno kantitatea aldatzen ari da atmosferan

Nitrogenoa da atmosferan dagoen gas ugariena, haren %78 baita. Azken urteotan, gizakien eraginaren ondorioz, nitrogenozko konposatuak, nitratoak adibidez, gero eta ugariagoak dira, eta horrek eragina izan dezake biziaren katean.

<http://ttiki.com/4387>

Zuhaitzetako hazi hegaldunen fisika hobeto ezagutzen dugu orain

Zuhaitz edo bestelako landareen haziek hegaldun moduko bat izaten dute. Zuhaitzetik erortzean, helikoptero baten eran higitzen dira hazi horiek. Mugimendu horren fisika aztertu dute ikerlari batzuek, irudi nahiz ondorio interesgarriak lortuz.



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16